

ISURKETA ARLOKO ARDURADUNA. 2019KO TESTA

50 galdera, beste 5 erreserbakoak

ERANTZUN ZUZENA: PUNTU 1
ERANTZUN OKERRA: 1/3 PUNTU
DENBORA: ORDUBETE ETA LAURDEN

1. (2000/60/EE) Uraren Esparru Zuzentzarauan xedatutakoaren arabera:

- a) Estatu kideek kontuan hartuko dute urarekin lotutako zerbitzuen kostuak berreskuratzeko printzipioa, ingurumen-kostuak eta baliabideei dagozkienak barne, betiere ur-masen kalitate-helburuak betetzen ez badira.
- b) Estatu kideek kontuan hartuko dute urarekin lotutako zerbitzuen kostuak berreskuratzeko printzipioa, ingurumen-kostuak eta baliabideei dagozkienak barne, eta, bereziki, printzipio honekin bat etorritz: kutsatzen duenak ordaintzen du.
- c) Estatu kideek kontuan hartuko dute urarekin lotutako zerbitzuen kostuak berreskuratzeko printzipioa, ingurumen-kostuak eta baliabideei dagozkienak barne (ez da aipatzen printzipio hau: kutsatzen duenak ordaintzen du).
- d) Estatu kideek kontuan hartuko dute urarekin lotutako zerbitzuen kostuak berreskuratzeko printzipioa, ingurumen kostuak sartu gabe.

2. (2000/60/EE) Uraren Esparru Zuzentzarauan adierazitakoaren arabera, ingurumen-helburu hauetako zein EZ dator bat lurpeko uretarako adierazitako helburuekin?

- a) Ur-masen egoera honda dadin ekiditea.
- b) Lurpeko urak atera daitezen ekiditea.
- c) Kutsatzaileen sarrera saihestea edo mugatzea.
- d) Kutsatzaileen kontzentrazioarenigoeran dauden joera garrantzitsuak alderantzizkatzea.

3. (2000/60/EE) Uraren Esparru Zuzentzarauak adierazle biologiko hauek aipatzen ditu ibaien egoera ekologikoa sailkatzeko:

- a) Fitoplanktona eta zooplanktona.
- b) Fitoplanktona, zooplanktona eta fauna iktiologikoa.
- c) Uretako flora, ornogabeen fauna bentonikoa eta fauna iktiologikoa.
- d) Uretako bestelako flora, zooplanktona eta fauna iktiologikoa.

4. Uraren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, elementu hauetatik zein EZ dago sartu beharrik demarkazio hidrografiko bakoitzeko eremu babestuen erregistroan?

- a) Giza kontsumorako bilketa-eremuak –eguneko 10 m³ baino gehiagokoak edo 50 pertsona baino gehiago hornitzen dituztenak–, bai eta mugatutako babes-perimetroak ere, hala badagokio.
- b) Hiriko hondakin-uren tratamenduari buruzko arauak aplikatuz eremu sentikortzat jotako eremuak.
- c) Aisialdirako deklaraturako ur-masak, bainatzeko ur izendaturako eremuak barne.
- d) Horiek guztiak nahitaez sartu behar dira Erregistroan.

5. Uraren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, erantzun hauetatik zein EZ zuzena?

- a) Isurketatzat hartuko dira ur kontinentaletan eta jabari publiko hidraulikoaren gainerako eremuetan zuzenean edo zeharka egiten direnak.
- b) Isurketatzat hartuko dira ur kontinentaletan eta kostaldeko uretan zuzenean edo zeharka egiten direnak.
- c) Debekatuta dago, oro har, ur kontinentalak kutsa ditzaketen urak eta hondakin-produktuak zuzenean edo zeharka isurtzea.
- d) Ezarritako ingurumen-helburuak lortzea izango da isurtzeko baimenaren helburua.

6. Uraren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera:

- a) Isurketak egiteko baimena ematen denean, bertan ezarritako mugak bete behar dira ebazpena ematen den unetik.
- b) Isurketak egiteko baimena ematen denean, bertan ezartzen diren mugak bete behar dira, gehienez urtebeteko epean.
- c) Baimena ematen denean, kutsadura murrizteko epeak eta programak ezarri ahal izango dira, isurketen ezaugarriak arian-arian egokitu daitezten baimenean ezartzen diren mugetara.
- d) Isurketak egiteko baimena ematen denean, baimen horretan ezarritako mugak bete behar dira, gehienez ere bi urteko epean.

7. Uraren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera:

- a) Isurketa-baimenek gehienez ere bost urteko indarraldia izango dute, eta bata bestearen segidan berritu ahal izango dira.
- b) Isurketa-baimenek gehienez ere bost urteko indarraldia izango dute, eta ezingo dira luzatu.
- c) Isurtzeko baimenek gehienez ere lau urteko indarraldia izango dute, eta ezingo dira luzatu.
- d) Isurketa-baimenek gehienez ere lau urteko indarraldia izango dute, eta beste lau urtez luzatu ahal izango dira gehienez.

8. Uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, ondorengo kasu hauetako batean EZIN da berrikusi isurketa-baimena. Zeinetan?

- a) Lehenago egon izan balira, isurketa-baimena ukatzea edo ematea beste modu batean justifikatuko zuketzen inguruabarrak gertatzen direnean.
- b) Isurketaren ezaugarriak hobetzen direnean eta interesdunak hala eskatzen duenean.
- c) Isurketaren titularrak alegatzen duenean, arrazoiak emanda, ezin dituela bete isurketaren baldintzak.
- d) Isurketa une bakoitzean aplikagarriak diren uren kalitate-arau eta -helburuetara egokitzeko, eta, bereziki, ibai, ibai-tarte, akuifero edo ur-masa bakoitzerako arroko plan hidrologikoek ezartzen dituztenetara.

9. Uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, baimendu gabeko isurketa bat egin dela egiaztatuta, arroko erakundeak hau egin beharko du:

- a) Zehatzeko eta uren kalitateari eragindako kaltea zehazteko prozedura ireki.
- b) Isurketa kontrolatzeko kanona likidatu.
- c) a) eta b) apartatuetan adierazitako bi jarduketak.
- d) Aipatutako jarduketetatik bat ere ez.

10. Uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, isurketak kontrolatzeko kanona honetara bideratuko da:

- a) Arroko erakundearen gastuak ordaintzera.
- b) Arro hidrografiko bakoitzaren ingurune hartzailea aztertu, kontrolatu, babestu eta hobetzera.
- c) Isurketak kontrolatzeko sistemak hobetzera.
- d) Isurketak kontrolatzeko kanona ez da finalista.

11. Indarrean dagoen Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren arabera, kasu hauetatik zein EZ da hartuko baimena behar duen isurketatzat?

- a) Jabari publikora egindako zeharkako isurketak azaleko uretan, hondakin-urak biltzeko kolektore-sareen bidez.
- b) Azaleko uretan jabari publikora egindako zeharkako isurketak, euri-urak biltzeko kolektore-sareen bidez.
- c) Lurpeko uretan egindako isurketak, lurzoruan edo lurpean iragazita.
- d) Aurreko ataletan aipatutako guztiek baimena behar dute.

12. Indarrean dagoen Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren arabera, isurketabaldintzak/baldintzek:

- a) Berariaz beteko dituzte Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduan bertan ezarritako mugak.
- b) Erregelamenduak berak finkatzen duena baino zorrotzagoak izan daitezke, baimenaren titularrak duen gaitasunaren arabera.
- c) Erregelamenduak berak finkatzen duena baino zorrotzagoak izan daitezke, ingurumen-helburuak betetzeak hala eskatzen duenean.
- d) Berdinak dira, isurketaren tamaina eta garrantzia edozein izanda ere.

13. Indarrean dagoen Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren arabera, hiri-eremuetako saneamendu-sistemek euri-jasetan izaten dituzten gainezkatzeei buruzko baieztapen hauetatik, zein EZ da zuzena?

- a) Hirigintza-garapen berrien proiektuek saneamendu-sare bereizleak edo bateratuak ezartzea komeni dela justifikatu beharko dute; ez dute, justifikatutako kasuetan izan ezik, hiri-aglomeraziotik kanpoko jariatze-urik izan beharko; ez dute gainezka bideetatik isuririk egingo garai lehorretan, eta elementuz hornitu beharko dute.
- b) Euri-jasetan sortzen den kutsadura behar bezala murrizteko, hiriko hondakin-uren isurketen titularrek nahitaez jarri beharko dituzte martxan obrak eta instalazioak, gertaera horietan sortzen diren kutsatzaile-kontzentrazio handiko lehendabiziko jariatze-urei eusteko eta urok hiriko hondakin-uren araztegiara behar bezala husteko egokitutako obra eta instalazioak.
- c) Euriteetan saneamendu-sistemen gainezkatzeen ondorioz ur-masen egoera aldi baterako hondatzea arau-haustea izango da.
- d) Saneamenduko sistema kolektoreko gainezka bideek eta araztegiara sartzekoek dagozkien elementuak izan beharko dituzte, kokalekuaren, antzinatearen eta drainatutako eremuaren tamainaren arabera, solido lodi eta flotatzaileek eragindako kutsadura mugatzeko. Elementu horiek ez dute eragin behar gainezka bideek husteko duten ahalmen hidraulikoa nabarmen murriztea, ez ohiko funtzionamenduan, ez eta huts eginez gero ere.

14. Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduak isurketak kontrolatzeko kanona kalkulatzeko prozeduraren barruan ezartzen duenez, maiorazio- edo minorazio-koefizientea zehazteko, isurketaren ezaugarrien atalean, 2.000 eta 9.999 biztanle baliokide arteko hiri-izaerako isurketek faktore hau izango dute:

- a) 1.
- b) 1,09.
- c) 1,14.
- d) 1,28.

15. Indarrean dagoen Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduarekin bat etorriz, 2.000 biztanle baliokidetik gorako aglomerazioak isurtzeko eta industrialdeetatik datozen isurketak egiteko baimen-eskaera berriek, 2015eko abenduaren 31tik aurrera aurkeztutakoak badira, hau egin behar dute:

- a) Gainezka egiteko puntuen zerrenda aurkeztu.
- b) Dokumentazio teknikoa eta neurriak, obrak eta instalazioak sartu, bai eta saneamendu-sistemetako jariatze-uren gainezkatzearen ondorioz sortutako kutsadura murrizteko neurriak ere.
- c) Gainezka bideei dagozkien elementuak ematea, kokalekuaren, antzinatasunaren eta drainatutako eremuaren tamainaren arabera, solido lodi eta flotatzaileek eragindako kutsadura mugatzeko.
- d) Gainezka bideei autogarriketa-sistemak ematea.

16. Indarrean dagoen Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren arabera, isurketa dagokion baimenik gabe egin bada, edo baimendutakoez bestelako baldintzetan, eta jabari publiko hidraulikoari 12.100 euroko kaltea eragin badio:

- a) Oso larritzat hartuko da.
- b) 10.000,00 euro arteko isunarekin zigortu ahal izango da.
- c) Larritzat joko da.
- d) 10.000,01 eurotik 50.000,00 eurora bitarteko isunarekin zigortu ahal izango da.

17. Indarrean dagoen Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren arabera, isurketa dagokion baimenik gabe egin bada, edo baimendutakoez bestelako baldintzetan, eta jabari publiko hidraulikoari 20.500 euroko kaltea eragin badio, isun hau jarrita zigortu ahal izango da:

- a) 10.000,00 euro arte.
- b) 10.000,01 eta 50.000,00 euro bitartean.
- c) 50.000,01 eta 500.000,00 euro bitartean.
- d) 500.000,01 eta 1.000.000,00 euro bitartean.

18. Kostaldee buruzko Legearen arabera, eduki hauetatik, zein EZ da nahitaez agertu behar itsasora isurtzeko baimenetan?

- a) Isurketaren muga kualitatiboak eta epeak, hala badagokio, efluentearen ezaugarriak arian-arian egokitu daitezzen ezarritako mugetara.
- b) Ingurune hartzailearen gaineko eraginen ebaluazioa, eremu hartzaileko uren kalitate-helburuak eta, behar izanez gero, kutsadura murrizteko hartu beharreko aurreikuspenak.
- c) Isurketa-kanona.
- d) Urtero isuritako karga kutsatzailea, kilotan neurtuta; gutxienez parametro hauek: DQO, SST eta N-NH4.

19. Kostaldee buruzko Legearen arabera, isurketa kutsagarriei kanon bat ezarriko zaie, honako hauen arabera:

- a) Isurketaren karga kutsatzailea.
- b) Isurketaren toxikotasuna.
- c) Isurketaren arriskugarritasuna.
- d) Kosten Legeak ez du aurreikusten isurketa kutsakorrak zergapetzen dituen kanonik.

20. Kostaldee buruzko Legearen arabera, nolako arau-haustea da "Itsas-lehorreko jabari publikoan lanak, isurketak, laborantza, landaketak edo mozketak egitea, beharrezko administrazio-titulurik izan gabe"?

- a) Arina.
- b) Larria.
- c) Oso larria.
- d) Ez da arau-haustea.

21. Kostaldee buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legearen arabera, ondorengo hauetatik zein da arau-hauste larria?

- a) Itsas-lehorreko jabari publikoan baimendu gabeko publizitatea.
- b) Itsas-lehorreko jabari publikoan lanak, isurketak, laborantza, landaketak edo mozketak egitea, beharrezko administrazio-titulurik izan gabe.
- c) Pertsonen bizitzarako, osasunerako edo segurtasunerako arriskutsuak diren ekintzak edo ez-egiteak, betiere delitu ez badira, eta, edozein kasutan, hondakin-urak baimenik gabe isurtzea.
- d) Administrazioari dagozkion polizia-eginkizunak oztopatzea.

22. Euskal Autonomia Erkidegoan, nork du lehorretik itsasora isurketak egiteko baimena emateko eskumena?

- a) Toki Administrazioak.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak.
- c) Foru-aldundiak.
- d) Estatuko Administrazioak.

23. Uraren Euskal Agentziari honako eginkizun hauek dagozkio, bestek beste:

- a) Baimenak izapidetzea EAeko barne-arroetako jabari publiko hidraulikora isurketak egiteko.
- b) Baimenak izapidetzea barne-arroetako jabari publiko hidraulikora isurketak egiteko, itsas-lehorreko jabari publikora lur-isurketak egiteko eta, kudeaketa-gomendioaren bidez, EAeko erkidego arteko arroetako jabari publiko hidraulikora isurketak egiteko.
- c) Baimenak izapidetzea barne-arroetako jabari publiko hidraulikora isurketak egiteko, eta, kudeaketa-gomendioaren bidez, EAeko erkidego arteko arroetako jabari publiko hidraulikora isurketak egiteko.
- d) Baimenak izapidetzea barne-arroen jabari publiko hidraulikora isurketak egiteko eta itsas-lehorreko jabari publikora lur-isurketak egiteko.

24. Euskal Autonomia Erkidegoko Uren 1/2006 Legearen arabera, Uraren Euskal Agentziak txostena egin behar du hirigintza-plangintzako dokumentu hauei buruz:

- a) Plan partzialak.
- b) Plan bereziak.
- c) Aurreko biak, bai eta plan orokorrak eta arau subsidiarioak ere.
- d) Aurrekoetako bat ere ez.

25. Euskal Autonomia Erkidegoko Uren 1/2006 Legearen arabera, hirigintza-plangintzako dokumentuei hasierako onespena eman ondoren Uraren Euskal Agentziak egindako txostena horrelakoa izango da:

- a) Loteslea.
- b) Ez-loteslea.
- c) Nahitaezkoa eta ez-loteslea.
- d) Ez-nahitaezkoa.

26. Euskal Autonomia Erkidegoko Uren 1/2006 Legearen arabera, zein epetan jakinarazi beharko da hirigintza-plangintzako dokumentuei hasierako onespena eman ondoren Uraren Euskal Agentziak egindako txostena?

- a) Hilabetean, eta, txostena egin ezean, negatiboa dela ulertuko da.
- b) 2 hilabetean, eta, txostena egin ezean, negatiboa dela ulertuko da.
- c) 2 hilabetean, eta, txostena egin ezean, positiboa dela ulertuko da.
- d) Hilabetean, eta, txostena egin ezean, positiboa dela ulertuko da.

27. Uraren Euskal Agentziak hirigintza-plangintzari buruz egindako txostenek honako hauek jasoko dituzte, besteak beste:

- a) Eskari berriei erantzuteko baliabideen eskuragarritasunari buruzko baldintzak.
- b) Hondakin-urak behar bezala tratatzeko sortuko diren konponbideei buruzko baldintzak.
- c) Aurreko biak.
- d) Aurrekoetako bat ere ez.

28. Uraren Euskal Agentziaren Estatutuak onartzen dituen martxoaren 10eko 25/2015 Dekretuaren arabera, hauetatik zein EZ da Uraren Euskal Agentziaren eginkizuna?

- a) EAEko interes orokorreko obra hidraulikoak.
- b) Lehorretik itsasorako isurketak egiteko baimena ematea.
- c) Saneamendu-sistemak kudeatzea eta ustiatzea.
- d) Uholde-arriskugarritasuna duten gunetan, pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatze aldera, beharrezko jotzen diren erabilera-mugak jartzeaz Jaurlaritzari proposamena egitea.

29. Hiriko hondakin-uren tratamenduari buruzko 91/271 Zuzentarauaren arabera, zein da aglomerazioaren definizioa?

- a) Eremu bat, zeinetan biztanleriak behar besteko kontzentrazioa duen, hiriko hondakin-urak biltzeko eta ur horiek tratatzeko instalazio batera edo azken isurketa-puntu batera eramateko.
- b) Eremu bat, zeinetan biztanleriak, udalerrri berean, behar besteko kontzentrazioa duen, hiriko hondakin-urak biltzeko eta ur horiek tratatzeko instalazio batera edo azken isurketa-puntu batera eramateko.
- c) Eremu bat, zeinetan biztanleriak edota jarduera ekonomikoek behar besteko kontzentrazioa duten, hiriko hondakin-urak biltzeko eta ur horiek tratatzeko instalazio batera edo azken isurketa-puntu batera eramateko.
- d) Udalerrri bateko biztanle gehienak biltzen diren eremua.

30. 91/271 Zuzentarauaren arabera, estatu kideek zainduko dute hiri-aglomerazio guztiek kolektore-sistemak izatea hiriko hondakin-uretarako ...

- a) Hala ere, banakako sistemak izan daitezke, hirigintza-administrazioak egokitzat jotzen badu.
- b) Horrela bilduko dira, gutxienez, hondakin-urak tratatzeko estazioa dagoen udalerriko urak.
- c) Hala ere, ez dago industria-isurketak kolektore-sistema horietara konektatzeko betebeharririk.
- d) Eta kolektore sistematik ez izatea justifikatuta dagoenean bakarrik egin ahal izango da, dela ingurumenarentzat inolako abantailarik ez dakarrelako, dela hura instalatzeak gehiegizko kostua dakarrelako.

31. 91/271 Zuzentarauaren arabera, hauek dira hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazioetatik datozen isurketetarako gehieneko kontzentrazio-baldintzak:

- a) 35 mg/l O₂ OEB₅ eta 150 mg/l O₂ OEK.
- b) 25 mg/l O₂ OEB₅ eta 125 mg/l O₂ OEK.
- c) 35 mg/l O₂ OEB₅, 125 mg/l O₂ OEK eta 35 N-NH₄.
- d) 25 mg/l O₂ OEB₅ eta 150 mg/l O₂ OEK eta 50 SST.

32. 91/271 Zuzentarauaren arabera, hauek dira hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazioetatik datozen isurketetarako gehieneko kontzentrazio-baldintzak, isurketak gune sentikorretan egiten direnean:

- a) 5 mg/l fosforo totala eta 30 mg/l nitrogenu totala, 2.000 eta 10.000 biztanle baliokide bitarteko aglomerazioetarako, eta 1 mg/l fosforo totala eta 6 mg/l nitrogenu totala, 10.000 biztanle baliokide baino gehiagoko aglomerazioetarako.
- b) 15 mg/l fosforo totala eta 20 mg/l nitrogenu totala, 2.000 eta 10.000 biztanle baliokide bitarteko aglomerazioetarako, eta 5 mg/l fosforo totala eta 6 mg/l nitrogenu totala, 10.000 biztanle baliokide baino gehiagoko aglomerazioetarako.
- c) 10 mg/l fosforo totala eta 30 mg/l nitrogenu totala, 10.000 eta 100.000 biztanle baliokide bitarteko aglomerazioetarako, eta 2 mg/l fosforo totala eta 10 mg/l nitrogenu totala, 100.000 biztanle baliokide baino gehiagoko aglomerazioetarako.
- d) 2 mg/l fosforo totala eta 15 mg/l nitrogenu totala, 10.000 eta 100.000 biztanle baliokide bitarteko aglomerazioetarako, eta 1 mg/l fosforo totala eta 10 mg/l nitrogenu totala, 100.000 biztanle baliokide baino gehiagoko aglomerazioetarako.

33. 91/271 Zuzentarauaren transposizioa egiten duen 11/1995 Errege Lege Dekretuaren arabera, nori dagokio lurraldea egituratzen duten hiri-aglomerazioak zehaztea?

- a) Estatuko Administrazioari, autonomia-erkidegoei entzun ondoren.
- b) Autonomia-erkidegoari, eragindako udalei entzun ondoren.
- c) Foru-aldundiei.
- d) Toki-administrazioei.

34. Lehorretik itsasora egiten diren isurketei buruzko 459/2013 Dekretuaren arabera, noiz ematen da isurketa-baimena?

- a) Jarduera-lizentziaren aurretik edo, hala badagokio, jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpenaren aurretik.
- b) Jarduera-lizentziaren ondoren eta obra-lizentziaren aurretik.
- c) Obra-lizentziarekin batera.
- d) Jarduera-lizentziaren ondoren eta isurketa hasi aurretik.

35. 459/2013 Dekretuaren arabera, baldintza hauetatik zein EZ da nahitaez isurketen baimenean sartu behar?

- a) Ingurune hartzailearen gaineko eraginen ebaluazioa, eremu hartzaileko uren ingurumen-kalitateko arauak eta, behar izanez gero, kutsadura murrizteko hartu beharreko aurreikuspenak. Jarduera-lizentziaren ondoren eta obra-lizentziaren aurretik.
- b) Isurketa Zaindu eta Kontrolatzeko Plana.
- c) Isurketa-kanona.
- d) Aurreko ataletan aipatutako guztiak sartu behar dira.

36. 459/2013 Dekretuaren arabera, lehorretik itsasora isurketak egiteko baimenak gehienez ere epe baterako emango dira (berritu daiteke, baldintza jakin batzuk betez gero):

- a) 3 urte.
- b) 5 urte.
- c) 8 urte.
- d) 10 urte.

37. 459/2013 Dekretuaren arabera, ezusteko isurketa baten aurrean, jarduketa hauetako bat EZ du nahitaez isuriaren titularrak egin behar. Zein?

- a) Berehalakoan jakinarazi Uraren Euskal Agentziari.
- b) Berehala jakinarazi SOS DEIAKi.
- c) Gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko xehetasuna biltzen dituen txostena bidali Uraren Euskal Agentziari.
- d) Aurreko paragrafoetan aipatutako jarduera guztiak dira nahitaezkoak.

38. 459/2013 Dekretuan araututako isurketa-kanonari buruzko baieztapen hauetatik, zein da egokiena eta osatuena?

- a) Isurketa-kanona dagokion isurketa-baimenean jasotako bolumenaren eta karga kutsatzailearen arabera da.
- b) Isurketa-kanona bolumenaren, karga kutsatzailearen, isurketa egiteko erabilitako eroanbide motaren eta isurketa-baimenean jasotako substantzia kutsatzaileen presentziaren arabera da.
- c) Isurketa-kanona bolumenaren, karga kutsatzailearen, isurketa egiteko erabilitako eroanbide motaren eta isurketa-baimenean jasotako substantzia kutsatzaileen presentziaren arabera da, eta zenbatekoa nabarmen murriz daiteke Jarraipen Protokolo Aukerakoaren bidez.
- d) Isurketa-kanona dagokion isurketa-baimenean ageri diren bolumenaren, karga kutsatzailearen eta substantzia kutsatzaileen presentziaren arabera da, eta, batez ere, saneamendu-azpiegiturak finantzatzeko erabiliko da.

39. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudiaren arabera, eremu babestuak izango dira giza kontsumorako ur-bilketa egiten den eremuak, baldin eta batez besteko bolumena honako hau bada:

- a) 10 metro kubiko egunean, edo 50 pertsona baino gehiago hornitzen baditu.
- b) 50 metro kubiko egunean edo 50 pertsona baino gehiago hornitzen baditu.
- c) 75 metro kubiko egunean edo 1.000 pertsona baino gehiago hornitzen baditu.
- d) 100 metro kubiko egunean edo 10.000 pertsona baino gehiago hornitzen baditu.

40. Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudiarekin bat etorritz, azaleko ur-bilketen kasuan, oro har, babes-eremua osatuko du arro isurlearen gainean erradio finko batez mugatutako azalera batek. Zenbatekoa?

- a) 100 m, 2.000 eta 15.000 biztanle bitarteko populazioan zerbitzu ematen duten hornidura-sistemen bilketetan.
- b) 500 m, 2.000 eta 15.000 biztanle bitarteko populazioan zerbitzu ematen duten hornidura-sistemen bilketetan.
- c) 200 m, 2.000 eta 15.000 biztanle bitarteko populazioan zerbitzu ematen duten hornidura-sistemen bilketetan.
- d) 50 m, 2.000 eta 15.000 biztanle bitarteko populazioan zerbitzu ematen duten hornidura-sistemen bilketetan.

41. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudiaren arabera, Administrazio Hidraulikoak instalazioen funtzionamendua eta efluentearen kalitatea etengabe kontrolatzeko sistemak ezar daitezela exijitu ahal izango du hemendik gorako hiri-aglomerazioen HUAN (Hondakin Uren Araztegia):

- a) 2.000 biztanle baliokide.
- b) 5.000 biztanle baliokide.
- c) 10.000 biztanle baliokide.
- d) 15.000 biztanle baliokide.

42. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudiaren arabera, berariazko azterlanik ezean, saneamendu-sistema unitarioetako huste-gailuetatik ibaian behera kokatutako kolektoreen edukiera, gutxienez, honako hau izango da:

- a) 10 litro/segundoko, 1.000 biztanleko.
- b) 20 litro/segundoko, 1.000 biztanleko.
- c) 30 litro/segundoko, 1.000 biztanleko.
- d) 40 litro/segundoko, 1.000 biztanleko.

43. Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudiaren arabera, uraren ziklo integralaren kostuak identifikatzeko, hauetako zein EZ da kontuan hartu behar?

- a) Hornidura- eta saneamendu-sareak mantendu, ustiatu eta berritzeko kostuak, altan zein bajan, edateko uren araztegiak (EUA) eta hondakin-uren araztegiak (HUA) barne.
- b) Hornidura- eta saneamendu-sareetako inbertsioen eta hobekuntza-programen amortizazioa, altan zein bajan.
- c) Inbertsioen eta hobekuntza-programen amortizazioa, EUAk eta HUAk barne.
- d) Aurretik aipatutako guztiak hartu behar dira kontuan.

44. Ondorengo baieztapenetatik, zein EZ dator bat Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudian jasotako ur-zerbitzuen kostuak tarifak ezartzeko jarraibideekin?

- a) Gomendatzen da tarifek, kuota finkoa izateaz gain, nahitaezko kuota aldakorra eta mailakatua izatea, uraren kontsumoaren arabera.
- b) Kuota finkoan gutxieneko ur-kontsumoa sartzea proposatzen da (etxebizitza bakoitzeko biztanle baten batez besteko kontsumoa sartzea gomendatzen da).
- c) Mailakako tarifak ezartzeko, zenbait kontsumo-tarte proposatzen dira, mailakakotasun-eskala egokiarekin, kostuak berreskuratzeko, baliabideak aurrezteko eta kontsumo ez-eraginkorra eta ez-jasangarria zigortzeko.
- d) Tarifetan zenbait hiri-erabiltzaile mota bereiztea gomendatzen da; gutxienez, hauek: etxeak, industriakoak eta merkataritzakoak.

45. Azaleko uren egoera ebaluatzeko prozesuan eta demarkazio hidrografiko bakoitzaren jarraipen-programetan (zaintza-kontrola, kontrol operatiboa, ikerketa-kontrola eta eremu babestuen erregistroko ur-masen kontrol gehigarria), gutxienez berrikusiko dira:

- a) 2 urtetik behin.
- b) 4 urtetik behin.
- c) 6 urtetik behin.
- d) 8 urtetik behin.

46. Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen arabera, ingurumen-inpaktuaren ohiko ebaluazio-prozeduraren mende jarri behar dira ondorengo baina edukiera handiagoa duten hondakin-urak tratatzeko instalazioak:

- a) 10.000 biztanle baliokide.
- b) 15.000 biztanle baliokide.
- c) 150.000 biztanle baliokide.
- d) 300.000 biztanle baliokide.

47. Indarrean dagoen Hirigintza- eta lurzoru-legeriaren arabera, hirigintza-eraldaketako jarduketan legezko betebeharra da:

- a) Dagokion jarduketan aurreikusitako urbanizazio-obra guztiak egitea eta ordaintzea – saneamendu- eta arazketa-obra barne–, bai eta zerbitzu-sare orokorrekin konektatzeko azpiegiturak ere.
- b) Dagokion jarduketan aurreikusitako urbanizazio-obra guztiak ordaintzea eta, hala badagokio, egitea –saneamendu- eta arazketa-obra izan ezik–, bai eta zerbitzu-sare orokorrekin konektatzeko azpiegiturak ere eta lehendik daudenak handitzeko eta indartzekoak ere, hark eskatzen duen jarduketatik kanpo egonagatik ere, duten tamaina eta ezaugarri espezifikoengatik.
- c) Dagokion jarduketan aurreikusitako urbanizazio-obra guztiak ordaintzea eta, hala badagokio, egitea –saneamendu- eta arazketa-obra barne–, bai eta zerbitzu-sare orokorrekin konektatzeko azpiegiturak ere eta lehendik daudenak handitzeko eta indartzekoak ere, hark eskatzen duen jarduketatik kanpo egonagatik ere, duten tamaina eta ezaugarri espezifikoengatik.
- d) Udalaren kontura egitea, ondoren lagatzeko, kasuan kasuko jarduketan aurreikusitako urbanizazio-obra guztiak –saneamendu- eta arazketa-obra barne–, bai eta zerbitzu-sare orokorrekin konektatzeko azpiegiturak ere eta lehendik daudenak handitzeko eta indartzekoak ere, hark eskatzen duen jarduketatik kanpo egonagatik ere, duten tamaina eta ezaugarri espezifikoengatik.

48. Indarrean dagoen Hirigintza- eta lurzoru-legeriaren arabera, txosten hauetako zein EZ da beharrezkoa urbanizazio-jarduketak antolatzeko tresnak onartzeko prozeduraren faseren batean?

- a) Administrazio hidrológicoarena, eskari berriei erantzuteko behar diren ur-baliabideak egoteari buruz eta jabari publiko hidraulikoa babesteari buruz.
- b) Kosta-administrazioarena, itsas-lehorreko jabari publikoaren mugaketari eta babesari buruz, hala dagokionean.
- c) Eragindako azpiegituren arloan eskumena duten administrazioenak, afekzio horri buruz eta jarduketak azpiegitura horien zerbitzu-ahalmenean duen eraginari buruz.
- d) Aurreko atal guztietan aipatutako txostenak bildu behar dira.

49. 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera, zer epetan egin behar dira jakinarazpenak?

- a) Hamar eguneko epean, administrazio-egintza ematen den egunetik zenbatuta.
- b) Hamabost eguneko epean, administrazio-egintza ematen den egunetik zenbatuta.
- c) Hilabeteko epean, administrazio-egintza ematen den egunetik zenbatuta.
- d) Bi hilabeteko epean, administrazio-egintza ematen den egunetik zenbatuta.

50. Norbera babesteko ekipamenduak kasu hauetan erabili beharko dira:

- a) Langileak jartzea komenigarritzat jotzen duenean.
- b) Langileak arrisku-egoeran dagoela sentitzen duenean.
- c) Arriskuak ezin direnean saihestu edo ezin direnean behar beste mugatu babes kolektiboko baliabide teknikoek bidez edo lana antolatzeko neurri, metodo edo prozeduren bidez.
- d) Ekipamendua jartzea sindikatuen aldarrikapen baten arabera denean.

Ordezko galderak:

51. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari dagokio hauek egitea:

- a) Emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruzko informazio-jarduerak.
- b) Emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruzko sentsibilizazio-jarduerak.
- c) Emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruzko orientazio-jarduerak.
- d) Emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruzko koordinazio-jarduerak.

52. Tratamendu-jardueren erregistroari dagokionez, tratamenduaren arduradunak edo eragileak datuak babesteko ordezkarri bat izendatu badu, hari jakinarazi beharko diote:

- a) Erregistroaren edukian egindako edozein gehikuntza.
- b) Erregistroaren edukian egindako edozein aldaketa.
- c) Erregistroaren edukian egindako edozein baztertze.
- d) Guztiak zuzenak dira.

53. - Zein da Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legearen I. Titulua?

- a) "Herri-aginteen jarduketak".
- b) "Herritarren eskubideak eta herri-aginteen betebeharrak hizkuntzaren alorrean".
- c) "Euskararen erabilera, hizkuntza ofizial gisa".
- d) "Euskararen erabilera irakaskuntzan".

54. (2000/60/EE) Uraren Esparruko Zuzentarauak egoera ekologikoa sailkatzeko kalitate-adierazle batzuk erabiltzea aurreikusten du. Testuinguru horretan, Shannon-Weaverren indizea aniztasun-indize bat da, eta honako hau zehaztea ahalbidetzen du:

- a) Fitoplanktonaren konposizioa, ugaritasuna eta biomasa.
- b) Uretako beste flora mota baten osaera eta ugaritasuna.
- c) Ornogabeen fauna bentonikoaren osaera eta ugaritasuna.
- d) Fauna iktiologikoaren osaera, ugaritasuna eta adinen egitura.

55. Zein arauk ezartzen ditu hondakin-uren analisirako saiakuntza- eta kalibrazio-laborategien gaitasun teknikoari buruzko baldintza orokorrak?

- a) ISO/IEC 14.001.
- b) UNE-EN 27.025.
- c) UNE-EN ISO/IEC 17025.
- d) UNE-EN ISO/IEC 9003.